



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko urtarilaren 9ko bilkura

Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, urtarilaren bederatzian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo

Deialdiaren eguna : 2023ko urtarilaren 5a

Afitzatze eguna : 2023ko urtarilaren 5a

2. ERABAKIA: ELIZA INGURUKO HILERRIAREN ALDE ZAHARREAN KONTZESIOEN EZARTZEA (9.1 Nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio Herriak hogeita hamar urteko kontzesioak proposatzen dizkiela herritarrei hilerri berrian eta bestalde, eliza inguruko hilerriko hilobiak terreno amankomunean direla, hots kontzesio agiririk gabeko hilobiak direla. Alabaina, kontzesiorik ez izanik ere, familia zenbaitek erregularri zaintzen dituzte familia hilobiak, eta batzuek hilobi gogorrak ere egin dituzte.

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio familia horiei aukera ematea beren hilobia kontzesio bilakatzeko, jakinez halako aldaketa Frantses estatuko jurisprudenzian existitzen dela, zehazki Estatu Kontseiluaren 1962ko maiatzaren 30eko erabakian. Bilakatze lan horren ondotik, Herriak prozedura bideratzen ahalko du abandonatuak diren hilobien berreskuratzeko. Eta honela, nahi duten familiek hilerrian kontzesioa ukaten ahalko dute.

Herri Biltzarrari proposatu dio kontzesio bakoitza hogeita hamar urtekoa izan dadila, 60 euroren truka, hots hilerri berrian bezala.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

- ERABAKI DU, herriko hilerrian terreno amankomunean diren hilobiak 30 urteko kontzesio bilakatzen ahalko direla horretarako eskaera egiten duten familientzat.
- 60 €-tan FINKATU DU, hilerri zaharreko hogeita hamar urteko kontzesioen prezioa,

- ERABAKI DU, Auzapezari ahala ematea hilerrietako kontzesioen emateko eta berreskuratzeko,
- AGINDU DIO, Auzapezari honako agindua betetzea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2023ko urtarrilaren 9an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/01/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/01/11n.